

Hernanik kronika

2005eko abenduaren 28a, asteazkena ::: 1.696 zka. ::: www.kronika.net



◆ SASKIBALDIA Urte Zaharreko 3garren torneo bihar hasiko da

Bihar eta etzi Hernaniko saskibaloitzaletasun taldeek 3garren Urte Zaharreko torneo jokatu dute Atletiko SS eta La Sallesaren kontra. Bihar hasiko da torneo eta alebin, infantil eta junior mailako taldeak Atletikoren kontra lehiatuko dira 16:30etan hasita Kiroldegian. ||

❖ ASKATASUNA

Jon Garmendia isolamenduan sartu dute Seysse-n

Askatasunak prentsa ohar batean salatu du Jon Garmendia Txuria eta Ekain Rodriguez presoak isolamenduan sartu dituztela 10 egunetarako, Muret-Seysseko presondegiaren. Talde honek adierazi duenez Garmendiak euskal presoentzat estatus politikoa aldarrikatzen zuen kamiseta bat zerraman eta funtzionarioek kentzeko eskatutakoan uko egin zuen, orduan biluztu eta kolpatu zutela salatu du Askatasunak. Garmendia eta Rodriguez urtarilaren 3an epaituko dituzte, euro agindua medio, eta abenduaren 30ean barraua egitekotan dira estatus politikoa aldarrikatzeko. ||

❖ KAROBI

Urteurren festa gaur

Gaur 5garren urteurren festa izango da txikientzat Karobin 16:30etan hasita. Lehenik jolasak izango dira, gero Marsel magoaren ikuskizuna eta bukatzeko txokolatada. ||

❖ ITURRITXO

Eskulanak eta jokoak Latsunbe Berrin

Iturritxo auzo elkarteak jolasak eta eskulanak antolatu ditu bihar eta etzira Latsunbe Berrin 2garren zenbakian, 10:30etatik 12:30etara. ||



Biteri kultur etxean dago maketa, teleferikoa nola geldituko den ikusi ahal izateko.

Portu auzoko bizilagunak gustora daude, teleferikoa jartzeko obrak hasi direlako

Auzoa eta Kaxkoa elkartuko ditu teleferiko berriak.
Proiektua ikusi nahi dutenentzat Biterin dago.

PORTUKO auzoa eta Kaxkoa elkartuko dituen teleferikoa jartzeko lanak hasi berriak dira eta gustora daude auzoko bizilagunak, aspaldiko eskari bati erantzuna eman zaiolako. Asmoa da Shangai etxetik Udaletxe aldera jartzea teleferikoak igotzeko eta Udaletxetik zerrategi aldera jaisteko. Obra honekin lortu nahi da auzotarrak errazago igo eta jaistea Kaxkora, ibiltzeko arazoak izan litzaketenak bereziki.

Eskailera elektrikoak ez

Urteak dira Portuko auzotarrak igo eta jaisteko zer bait jartzea eskatzen ari zirela. Hasiera batean eskailera elektrikoak jartzea pentsatu zuten, baina, dirudieenez, inpaktu ambiental haundiagoa izango litzateke udal teknikarien arabera: "hemengo klimarekin estalpea egin beharko litzateke eskailera elektrikoak,

arazoak emango bailituzkete bestela; eta tunel moduko hori itsusiegia da eta hondatu egingo luke Leoka ingurua". Gainera, inguru historiko izendatu dute Leoka eta Kaxkorako igoera eta Europako diru laguntza jaso du proiektuak.

Proiektua bukatuta nola
geldituko den Biterin ikusi
liteke, kultur etxean, panel
haundi batzuetan

Teleferikoak probatzen
Udaran, auzotar talde bat teleferikoak probatzen ibili da. Hasiera batean, teleferiko irekia jartzea pentsatu zuten eta Montjuic-en probatu zuten teleferikoa.

Negurako, ordea, hotzegia izango litzateke eta eskiatzeko pistetara igotzeko horietakoak jartzea erabaki dute, Udal teknikarien oniritziarekin.

Portuko auzotarrak gustora daude eta adierazi dute proiektua martxan jarri izan ez balitz pentsatzen ari zirela festetako astoak aprobetxatzea Kaxkotik auzorako garraiobide berri bat sortzeko. ||



Auzotarrak Montjuic-en teleferikoa probatzen.

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

**Eguneroko ogia
beti bikain**

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487
20120 Hernani

OINDI

taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegia

Ana eta Koldo

Eguneko menua
Ezkontzak
Komunioak
Karta
Kuadrilak
Sagardotegia

Oialume Bidea, 57
20115 Astigarraga (Gipuzkoa) Telf_943 33 33 33

☎ **TELEFONOAK** **Taxiak:** 943 550093 **Udaltzaingoa:** 943 333288 **DYA:** 943 464622
Autobusak: 943 556662 **Anbulatorioa:** 943 006666 **Jokalarri anonimoak:** 943 331103
Alkoholiko anonimoak: 943 331103 **FARMAZIAK** **Egunez:** **Bulnes** Florida auzoa - 943 557738
Gauez: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Hotz haundiagoa egingo du eta elur kota 300 metrotara jaitsiko da. Goizaldean izotza botako du. Temperatura minimoa -2°Ckoa izango da eta maximoak berriz ez ditu 5°Ck gaindituko.

BIHAR Goizean hotzarekin jarraituko dugu eta elurra nahiko behera jaitsiko da. Arratsaldetik aurrera prezipitazioak ugariagoak izango dira eta elur kotak gora egingo du tenperaturarekin batera.

(euskalmet)



◆ PELOTA 'Tximista' txapelkun aurten ere, Kronika pelota txapelketan

Joan den larunbatean jokatu zen Kronika Pelota Txapelketako laurdikoko finala eta iaz bezalaxe Josu Nabarte Tximista goizuetarrak irabazi zuen, finalean Josu Apezetxea 22-12 gaitututa. Apezetxea aurretik joan zen baina, Tximistak jo arazi egin zion, defentsa izugarriarekin. Hirugarren, berriz, Xabier Legarreta gelditu zen Mikel Ruiz de Galarretari 22-18 irabazita. Sari ematen losu Oiaga eta Oier Mendizabal aritu ziren eta argazkian lehenengo lauak eta sari emaleak ageri dira.

Laster bi bitako txapelketarako izen ematea zabalduko da eta Kronikak emango du horren berri. ||

Kontsumo arduratsua bultzatzeko jolasak

Gaur, bihar eta etzi kiroldegiko jangelan.

UDALETXEKO Ingurugiro Sailak antolatuta eta Artelatzen bideratuta jolasten ariko dira gaurtik ostiralerara Lehen Hez-kuntzako ikasleak. Tribial moduko joko baten bueltan ariko dira, galdera, frogak eta jolasak eginez, denak ere kontsumo arduratsuen inguruan kontzientzia har dezaten. Gaur goizean LHko 3 eta

4garren mailako ikasleak ariko dira; eta bihar eta etzi, LHko 5 eta 6garren mailakoak. Goizeko 11:00etatik 13:00etara ariko dira jolasean, kiroldegiko frontoi ondoan dagoen jangela zaharrean.

Arratsalderako iragarritako jolasak bertan behera geratu dira, DBHko ikasleek ez dutelako izena eman. ||

❖ KONTZERTUAK

Kantuz Abesbatza eta Musika Bandaren kontzertua ostiralean Milagrosan

Urtero kontzertua egiten du Kantuz Abesbatzak sasoi honetan, baina aurten Musika Banda izango du lagun. Musika sakroa entzun ahal izango da koruko ahots eta bandako musika instrumentuek interpretatuta. Kontzertua ostiralean, hilaren 30ean, izango da Milagrosan, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. ||

❖ MOLOTOFF IRRATIA

Ceuta eta Melillako hesia aztergai

Gaur 21:00etan Molotoff irratiak *Lasarte Oihukan* saioan Ceuta eta Melillako hesiari buruzko programa berezia emitituko du SOS Arrazakeriak. Bertan Diego Llorente abokatuaren iritziak ere jasoko dira. Saioa bihar errepikatuko dute 16:00etatik 17:00etara. ||

❖ IPUIN KONTALARIA

Ipuin kontalaria ostegunean

Ipuin kontalariaren saioa asteartetik ostegunera aldatu dute. Beraz ostegunean 17:30etan 3 eta 4 urteko haurrentzat eskainiko du saioa Lur Korta ipuin kontalariak, eta 18:00etan 5 eta 7 urte arteko haurrentzat. Antolatzaileek eskatu dute eragozpenak barkatzeko. ||

❖ OLIO BILKETA

Olio eta gai bereziak jasoko dituzte bihar

Olio eta gai bereziak jasoko dituzte bihar birziklatzeko. Arratsaldeko 16:00etatik 16:20etara izango dira Ereñotzun eta arratsaldeko 16:30etatik 19:00etara ferian. ||

❖ HERIOTZAK

Lurdes Iriondo abeslaria hil da

Atzo hil zen 68 urterekin Lurdes Iriondo abeslari ezaguna eta Ez Dok Amairuko sortzailetako bat. Iriondoren errautsei gaur 12:00etan emango diete lurra Urrietako hilerrian, eta 18:00etan egingo dituzte hileta elizkizunak Urrietako parrokan. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Ettxeko lanak egiteko, esperientzia duen emakumea behar da. **Interesatuak** deitu: 609 82 34 72

Etxea salgai Ereñotzun. 3 gela, sala, sukaldea eta komuna. Orain 5 urte berritua. 650 04 03 16

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. **Deitu:** 656 78 64 15

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Etxea salgai Gudarien plazan. Deitu 13:30etatik 15:30etara. 679 10 75 06.

Alkatetzak dio ur parkea eraikitzen ari direla, ez igerileku bat

Alkatetzak dio aisialdirako gunea dela ur parkea, Udan hondartzarako autobusean "sardin lata batean bezala" joan beharrik ez izateko.

ALKATETZAK bidalitako prentsa ohar batean argitu nahi izan du Mendi Mendiyan egiten ari dena ez dela igerilekua, ur parkea baizik: "familiar edota banaka aisialdiaz gozatu eta entretenitzeko, udan hondartzarako autobusean sardin lata batean bezala joan beharrik ez izateko" adierazi du. Horrekin batean dio ur parkearena ez dela "TBEOko asmakizuna" eta beste herrietan martxan dagoen formula dela eta diote Azpeitian, esate baterako, erabateko arra-

kasta izan duela.

Alkatetzak dio "udan igerileku irekietara joan ezker ez dela inor ere ikusten luzeak egiten, ez delako igeri egiteko erabiltzen uraz gozatzeko baizik".

Errentagarritasuna eztabaidan Alkatetzak dio proiektu honen errentagarritasunaz eztabaidatzen dutela batzuek. 2.384.000 euroko aurrekontua du eta Diputazioak 600.000 euro jarriko ditu. Horren aurrean dio ahaztu egin dutela Udalak ia 2 miloi euro gastatu dituela

Zubipeco zelaia eraiki eta egokitzen. Bi instalazioak aurrez aurre jarri nahi gabe Alkatetzak dio "ur parkea erabiliko den hilabeteetan, Zubipeco urte guztian dituen erabiltzaileak biderkatuko dituela". Alkatetzak dio "ez duela inor eza gutzen eskuak burura jaso dituen Zubipeco inbertsio multibilionarioarengatik".

Bukatzeko dio hernaniarrak ur parkeari emango dioten erabilerak arrazoia emango diela instalazio honen alde egin dutenei. ||

2006ko Egutegia

Prezioa: 3,00 €

● Ilbehera ● Ilberri
Salgai ohiko tokietan

ILBELTZA

Kronika, Dobera, Sebas, Iruretagoiena, Leokadisti, Plaza Berri, Zinko-enea, Konde, Dorronsoro, Bikain, eta Antziola okindegian.



dobEra
EUSKARA ELKARTEA

**Hernanik
kronika**